

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Ostirala, 2011ko azaroaren 4a. VIII. urtea. 2.302. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Imanol Aramendi, Aitor Imaz, Xabier Ormazabal eta Neijc Rudel KUP abesbatzako kideak

«Europako Sari Nagusian musikaren historia errepasatuko dugula dirudi»

Abesbatza Kantuaren Europako Sari Nagusia izango da bihar Tolosako Leidor aretoan, 17:30etik aurrera; bost taldek hartuko dute parte, tartean KUP abesbatzak

Euskaldunek biharko emanaldian Berpizkundetik XX. menderainoko obrak abestuko dituzte; oso pozik daude, «inork ez zuen sinesten hona iritsiko ginenik», diote **02-3**



Rudel, Imaz, Aramendi eta Ormazabal. I. URKIZU

Emakumea Pilotari Txapelketa, hastear

Eskualdeko Garmendia, Mendizabal eta Arozena ariko dira lehia **07**



Atzoko aurkezpeneko irudi bat. I.T.

Tolosa&Co-k antolatuta, kale emanaldiak larunbatetan

Hiru saio izango dira, guztiak azaroan; bihar izango da lehenengoa, Jabadeus taldearekin **07**

Euskaraz hitz egiteko Mintzalaguna egitasmoak badu jarraipena

Tolosako Galtzaundi euskara taldeak bigarren urtez antolatu du proiektua; Mintzalagunan 40 lagunek hartzen dute parte, eta aurten hitanoa lantzeko aukera izango da **05**



Mintzalagunaren zenbait kide, ikasturtearen hasiera ofizialean. GALTZAUNDI

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008



TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA

San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com



Imanol Aramendi, Aitor Imaz, Xabier Ormazabal eta Neijc Rudel ◊ KUP koruko kideak

Tolosan jaioak dira hiru, eta laugarrena ere tolosarra da, Eslovenian jaio zen arren. KUP taldeko abeslariak dira, eta bihar, Abesbatza Kantuaren Europako Sari Nagusian parte hartuko dute, 17:30etik aurrera, Leidorren.

«Inork ez zuen pentsatuko KUP taldea hona iritsiko zenik»

Itzea Urkizu Tolosa

Europako bost abesbatzek parte hartuko dute, bihar, Leidorren ospatuko den Abesbatza Kantuaren Europako Sari Nagusian. 17:30ean hasiko den emanaldian, iazko Nazioarteko Abesbatza Lehiaketetako zirkuitu ofizialetako irabazleek parte hartuko dute. Horrela, Consono Chamber Choir, Cantemus Children's Choir, Coro Città Di Roma, Svenska Kammarkören eta KUP abesbatzak izango dira oholtzan.

Neijc Rudel, Aitor Imaz, Imanol Aramendi eta Xabier Ormazabal tolosarrekin, KUP taldean abesten dute, eta HITZAREKIN hitz egin dute.

Sari nagusian parte hartzeko, zirkuitu lehiaketaren batean irabazi behar da. Non irabazi zuen KUP taldeak?

Xabier Ormazabal: 2010eko maiatzean irabazi genuen, Tours-en, Frantzia, eta horregatik parte

hartuko dugu, bihar. Tours-eko lehiaketa honez gain, Hungarian Debrecen-go lehiaketa, Bulgariar Varna-ko lehiaketa, Italian Arezzoko lehiaketa, Suedian Maribor-eko lehiaketa eta Tolosako lehiaketa dira zirkuitukoak; gutzira sei dira, beraz. Debrecen-go eta Maribor-eko lehiaketak, ordea, bi urtez behin ospatzen dira, txandakatuz. Bost lehiaketa izaten dira urtero, eta lehiaketa bakoitzeko abesbatza irabazleak hurrengo urteko Europako Sari Nagusian parte hartzen du.

Orain arte, bi euskal abesbatzek soilik lortu dute Europako Sari Nagusian parte hartzea: Hodeiertzek eta KUPek. Zuetakoren batek, bigarren aldiz abesteko du sari nagusian. Zer nolako garrantzia du horrek?

Imanol Aramendi: Nik Hodeiertzekin abestu nuen, eta bihar ere abestuko dut. Txantxetan esaten dut, sari nagusietako Edurne Pazaban izango naizela, eta guztiak egingo ditudala [barreak]. Ho-



Neijc Rudel, Aitor Imaz, Imanol Aramendi eta Xabier Ormazabal KUPeko kideak dira. I. URKIZU

deiertzekin Gorizian duela 20 urte parte hartu genuen, eta oso abesbatza gaztea ginen. Horrelako esperientzia bat beste modu batera bizitzen duzu 20 urte gehiagorekin. Hodeiertzekin parte hartu genuenean zirrara oso

berezia sentitu genuen; sari nagusian parte hartzen zuen lehen euskal abesbatza ginen. Abesbatza kantua Europako Sari Nagusian urte gutxiko ibilbidea zuen artean, eta pozik geunden. Orain, lasaiago ikusten da guztia.

Honen harira, Tolosan abesbatzei dagokienez zer nolako maila dagoela uste duzue?

I.A.: Beste herrialde batzuenagandik ikasteko asko dugu oraindik. Argi dago herrialde baltikoek, eskandinaviarrek eta alemaniarrek



CITTA DI ROMA

■ **Italia.** Varna (Bulgaria) lortu zuten Sari Nagusian parte hartzeko txartela. 1979an sortu zen abesbatza, eta bere hasieratik

konzertu jarduera bizia mantentzen dute Italian eta atzerriarri, musika polifonikioaren ikasketa eta zabalkundea sustatuz. Mauro Marchetti da koruaren zuzendaria.



KUP TALDEA

■ **Euskal Herria.** Tours-en (Frantzia) irabazi ostean, Europako finalean abesteko du. Gabriel Baltes da zuzendaria, Musikene zentroan abesbatzen zuzendaritza irakaslea. Taldea 2003an sortu zen, gazte talde baten ekimenez. Sorreratik bertatik, zailtasun eta konplexutasun tekniko handia duten maila goreneko obrak interpretatzea izan da KUP taldearen helburua.



CANTEMUS CHILDREN'S CHOIR

■ **Hungaria.** Iazko Tolosako Abesbatza Lehiaketan sari nagusia eskuratu zuen. Hainbat sari jaso ditu azken hogeitaz urteetan, tartean nagusiak. 1975tik, Gregoriano, Bepizkunde, Erromantizismo eta aldi garaikideko musika lan ederrez osatu du bere errepertorioa. Hungariako musikagile ezagunen lanak estreinako aldiz abesteko ohorea izan dute maiz. Biharko lehiaketan parte hartuko duen haur abesbatza bakarra da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

rrek beste kultura eta heziketa bat dutela. Herialde hauetan, musika eskoletan abesbatza batean kantatzea oso harrera ona duen zerbait da; hemen, ordea, duela gutxira arte behintzat, isolaturiko zerbait zen. Hemen, abesbatza batean kantatu nahi baldin baduzu, zerorrek hasi behar duzu bidea.

Aitor Imaz: Eslovenian, adibidez, oso ohikoa da abesbatza bateko kide izatea.

Nejic Rudel: Ia eskola guztietan abesbatza bat edo gehiago dago. Ikastetxeetan, txikitatik sustatzen zaie ikasleei, abesbatza batean kantatzea. Herritarren gehiengoarentzat oso ohikoa da abesbatza batean kantatzea. Eslovenian elkarrekin batean edo mahaiaren inguruan hiru lagun baldin badaude, abestu egiten dute beti.

I.A.: Hemen, ia ez dago abesbatza profesionalik. Alemanian, Eskandinavian edo beste lurralde batzuetan, hertsiki profesionalak ez izan arren, bada abesbatza batean kantatuz bizi den jendea. Hori, hemen, oso zaila da.

Zuetako bakoitza nola sartu zen abesbatzen munduan?

I.A.: Ni abesbatza lehiaketaren bidez. Gida moduan hasi nintzen, gustatu egin zitzaidan, eta Tolosan Hodeiertz abesbatza sortu zenez, bertan abesten hasi nintzen.

A.I.: Ni solfeoa hasi nintzen, gero akordeoiarekin eta gero abesbatzan. Leidor abesbatzan hasi nintzen, gero Hodeiertzen, eta pixkanaka saltsa guztietan aritu izan naiz.

X.O.: Nire arrebak koru batean abesten zuen, baita nire amak

ere; etxean beti izan dut heziketa hori. Baina ez nuen interes berezirik izan, abesbatza lehiaketan gida moduan aritu nintzen arte. Abesbatzan hasi nintzen eta 14 bat urte daramatzat jada.

I.A.: Xabi (Ormazabal) Hodeiertzako fitxatu nahian ibili ginenean urteetan, gainera! [barreak]

N.R.: Nik, egia esan, ez dakit noiz hasi nintzen abesten, ezaguera dudanetik abesten dut. Tolosara, berriz, lehiaketarekin iritsi nintzen ni ere. Esloveniako abesbatza batekin parte hartu genuen, eta gaur egun nire emaztea dena, abesbatzaren laguntzailea izan zen lehiaketan. 2000. urtean, Tolosan Europako Sari Nagusia izan zen, eta abesbatzarekin etorri nintzen; berriro bera izan zen gure gida. Horrela ezagutu genuen elkar.

Zein motatako errepertorioa duzue?

A.I.: KUPen programa nahiko klasiko da. Zuzendaria frantziarra da, eta beste kultura bat du, eta hori taldean islatzen du.

X.O.: Garaikideak ez diren autoreen obrak abesten ditugu.

Eta sari nagusian obra beharturen bat ba al dago?

A.I.: Ez, talde bakoitzak 25 minutu ditu, eta denbora tarte horretan nahi duguna abestu dezakegu. Guk musikaren historia errepasatuko dugula dirudi. Berpizkundetik hasi, eta XX. menderainoko obrak abestuko ditugu.

I.A.: Guk, oso folklore gutxi lantzen dugu; koru polifonikoa gara.

A.I.: Horrelako programak gutxitan entzuten dira hemen.

Nolakoa izan da Europako Sari Nagusirako prestakuntza?

A.I.: Azaroaren 5a seinalatuta

izan dugu urte osoan zehar, baina pixkanaka aritu gara.

I.A.: Zuzendariak argi izan du beti, kalitatezko programa bat eskaini nahi duela; KUP benetan zer den ikustea nahi du.

X.O.: Euskal Herriko txoko desberdinetako jendea garenez, eta zuzendaria frantziarra denez, sarri elkartzea ez da erraza. Beraz, hila batean behin egiten ditugu entseguak.

I.A.: Noizean behin elkartu arren, entseguak bi egun irauten dute. Oso entsegu luzeak egiten ditugu, eta kideok gure aldetik lan handia egiten dugu partiturak ikasteko.

Publikoa abesbatza musika entzuterako ohitua al dago? Tolosarek estimatzen al dute lehiaketak duen garrantzia?

I.A.: Kalitatezko musika transmititu egiten da. Beste kontu bat da, jendea kontzertuetara erakartzea. Lan egin behar da, abesbatza musikaren kultura zabaltzen.

A.I.: Frantzian, elizak bete egiten dira sarrera ordainduz. Hemen, sarrera doakoa izaten denean ere, oso jende gutxi izaten da.

Azkenik, Europako Sari Nagusia irabaztea zer izango litzateke KUPentzat?

I.A.: [Barreak] Hasteko, ezin izango genuke, bi urtetan, zirkuituko lehiaketetan parte hartu.

X.O.: Poz handia sentituko genuke.

A.I.: Amets bat da; inork ez zuen uste KUP Europako Sari Nagusia iritsiko zenik.

I.A.: Gure helburua emanalditik gustora irteeta da, lan ona egitea.

N.R.: Guk jendea animatu nahi dugu. Etor daitezela ikustera.



iaz 50. urteurrena ospatu zuen Txintxarrikoek bere egunean. E.ARRAYET

Dena prest dute Txintxarri Egunerako

Egitarau erakargarria prestatu dute Txintxarri eta Txintxarri Txiki ikandeko kontzerturako

Nerea Pikabea Alegia

Urteko egunik garrantzitsuenetakoa ospatuko du Txintxarri Abesbatza kultur elkarteak igandehonetan: 14. Txintxarri Eguna. Egun horretan Txintxarri Txiki eta Txintxarri Abesbatzek kontzertua eskainiko dute, eta horrez gain, bazkaria egingo da Txintxarri jatetxean. Egitarau erakargarria prestatu dute egun horretarako bi abesbatzek.

Iazko urtea berezia izan zen abesbatzarentzat, ekitaldietan herritarren parte hartzea sekula baino handiagoa izan baitzen. Aurten ere izpiritu horri eutsi nahi diote korukoek. Hori dela eta, egun herrikoia izatea nahi dute aurtengoa ere.

Lehendabizi meza nagusian parte hartuko dute helduen abesbatzakoek. Pedro Joxe Peñagarikano frantziskotarraren *Euskaldunen mezako Aintza* abestuko dute, besteak beste.

Kantu berritzaileak

Eguerdia pasata, 12:15ean, kontzertua eskainiko dute herriko elizan Txintxarri Txiki eta Txintxarri Abesbatzek. Lehendabizi haur abesbatzakoak arituko dira Idoia Iraolaren zuzendaritzapean. Xabier Amurizaren *Mendian gora* abestuko dute aurrena, Bizente Martinezen moldaketa da-

ramana; Aitor Iraola herritarrek lagunduko die pianoan. Ondoren, Hego Afrikako *Nesiponono* abestia abestuko dute, koreografia eta guzti.

Txintxarri abesbatzak, berriz, zazpi kantu eskainiko ditu, Garbiñe Orbegozok zuzenduta. Mariaje Rekondo herritarrek lagunduko die pianoarekin hainbat kantutara. *Baratz bat* abestiarekin hasiko dira. Ondoren, *O sacrum convivium* eta *Matona mia cara* kantatuko dute. Segidan, saioko abesti berritzaileenetakoa eskainiko dute, Mikel Urdangarinen *Usaiak*. Aruba irlako herri abesti bat ere kantatuko dute, koreografia eta guzti: *Balia di Sehu*. Segidan, David Azurza tolosarrak iaz Iparraldeko sorkuntza koralarako konposatutako obra abestuko dute, *Areson aleka*.

Ondoren, 50. urteurrenarako egiten eta iazko Txintxarri Egunean estreinatu zuten *Pausoz pauso* abestuko dute. Xabier Sarasolak eta Felix Irazustabarrenak Txintxarri Egunerako egindako kantua da. Bi taldeek batera kantatuko dute Akelarreren *Kantuz* kontzertuari bukaera emateko.

Txintxarri Eguneko bazkaria ere herri girokoa izatea nahi dute abesbatzakoek, kantua oinarri izango duena. Bazkari legean, bezaz, kanturik ez da faltako.



SVENSKA KAMMARKÖREN

■ **Suedia.** Azken urte hauetan, Suediako ahots nahasien abesbatza ezagunetarikoa bihurtu da, izen handiko grabaketak egin eta nazioarteko lehiaketetan sari ugari irabazi dituztelako. Abesbatzaren errepertorioa Berpizkundetik aldi garaikideraino lanez beteta dago. Iaz Arezzon (Italia) lortutako sari nagusiak eman dio bihurtu finalean parte hartzeko txartela abesbatza suediarri.



CONSONO CHAMBER CHOIR

■ **Alemania.** Consono ganbera abesbatza bere zuzendari Harald Jers-ek sortu zuen 2001ean. Azken urteetan enkarguzko hainbat lan estreinatuta ditu. Nazioartean izena duen taldea da, disko grabaketak, irrati grabaketak eta hainbat lehiaketetan lehenengo sariak irabazi dituelako, besteak beste, Alemaniako Lehiaketa Nazionala 2006an. Iazko Debrecen-go (Hungaria) txapelketan lortu zuten sari nagusia.

HARATEGIA SALGAI AZPEITIAN
Lotea bidan dago eta 90m2 ditu
Informazio gehiagorako:
635 746 321

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Leitzan etxebizitza salgai. Aukera ezinhoba. Lehendabiziko pisua, oso egocerra olean. Bizitzera sartzeko

prest. 90m2. Sukaldea, bainu-gela, hiru logela handi eta trasteleku. Ilogailua jarri berria eta berogailuarekin. Interesatuek deitu 649 20 83 10ra.



**AZAROAK 5, LARUNBATA
LARUNBATA
IKASLE EGUNA**

AMASAKO SAMARTIÑAK
AZAROAK 10, OSTEGUNA
Gazteen eguna
6:00 Gazteen gosaria Ongi Etorrin, trikitilari eta dultzaineroek alaiturik
16:30 Soka dantza eta aureskua plazan Ondoren Trikitilarien erromeria

AZAROAK 11, OSTIRALA
San Martin eguna
11:00 **Idi demak** Joxe Munduate eta Iñigo Gorostazu bertsolariek eta trikitilariak alaiturik
17:30 **"Irrien lagunekin kanta eta dantza"** pailazoan emanaldia, ondoren txokolate beroa.
20:00 XX.Bakailao Lehiaketa
MOZORRO GAUA
23:30 **LAIOTZ**

AZAROAK 12, LARUNBATA
11:00 **Ume Krosa** 6.mallara arte
12:30 **Giza proba**
14:00 **Herri Bazkaria**
18:00 **Onintza Agirre** eta **Naroa Enekotegi**ren kontzertua elizan.
22:30 Bertso saioa, Ondoren **ZEA MAYS** eta **INGO AL DEU?**

AZAROAK 13, IGANDEA
11:30 **Ume jolasak** frontoian eta **Euskal Astoekin** pasean
18:00 Herri kirolak herriko gazteekin Ondoren **Martina Sorginari** agurra eta XXII. Intxorren aldatzea

AZAROAK 13, IGANDEA
4. ARGAZKI RALLY-A
AIZKARDI MEK antolatua

AZAROAK 19, LARUNBATA
I. AMASAKO AZOKA BEREZIA
10:00etatik aurrera

AZAROAK 20, IGANDEA
Euskal Herriko I.MENDIDUATLOI ZIRKUITUA 11:00etan

AZAROAK 21-27,
AIZKARDIREN
28.MENDI ASTEA

AZAROAK 25, OSTIRALA
"GENERO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA"

Egitaraua
20:00 Konzentrazioa Berdura Plazan
21:00 Pelikula emanaldia Udaletxeko balioaitzeko gelan:
"Mis tardes con Margarita"

antzerkia

AZAROAK 25, ostirala 22:30
ERRAUTSAK

Haur antzerkia

AZAROAK 27, Igandea 16:30
ZAPATAGORRIAK

zinea

URTE BERRI ON AMONA
Azaroak 5, 19:30/22:15
Azaroak 6, 19:30
Azaroak 7, 21:30
LINTERNA VERDE
Azaroak 6, 16:30
BERTSOLARI
Azaroak 12, 19:30/22:15
Azaroak 13, 19:30
Azaroak 14, 21:30
PHINEAS & FERB
Azaroak 13, 16:30
EL ARBOL DE LA VIDA
Azaroak 19, 19:30/22:15
Azaroak 20, 19:30
Azaroak 21, 21:30
ZOOLOCO
Azaroak 20, 16:30
CRIDAS Y SEÑORAS
Azaroak 26, 19:30/22:15
Azaroak 27, 19:30
Azaroak 28, 21:30

XIII. Donostiako Hiri Rallya Zizurkilera iritsiko da bihar, zatirik ikusgarrienean

Rallya gustuko dutenek 14:30ean Pello Mari Otaño plazara gerturatu beharko dute lasterketa ikusteko

A. Imaz Zizurkil

Zizurkilaren azaroa ekitaldiz jantzi dute; oroimen historikoaren inguruko omenalditik hasi eta ikas-tarotearaino.

Kirolen atalean, urteroko ekitaldi bat azzimarratu behar da: Tourreko lehen txirrindulari euskaldunari egingo zaion omenaldia, hilaren 25ean Urkamendi Elkartean. Rally zaleek bestalde, hitzordua hilaren bostean, bihar, izango dute.

XIII. Donostia Hiria Rallya Pe-

llo Mari Otaño plazatik aterako baita, 14:30ean.

Bestalde, *Orotimen Historikoa, Zizurkil eta Gerra Zibila 1936/2011* ekimena hilaren 6an amaituko dela gogoratu behar da. Etzi bezar, hilerrian monolito bat jarriko dute, herriko fusilatu eta errepre-saliatuaren omenez. Teodoro Hermandorena taldeak herritar guztiak gonbidatu ditu 12:00etan hasiko den ekitaldi garrantzitsura.

Euskararen inguruan, Zizurkil-Teodoro Hermandorena X. Ipuin Lehiaketa antolatuko dute. Andoain, Aduna, Alkiza, Asteara, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura, Larraul eta Zizurkilgo herritarrek parte hartu ahal izango dute lehiaketa honetan, eta bost maila ezberdin antolatuko dituzte, adinaren arabera. Lan bakoitzaren hiru kopia entregatu behar

dira hilaren 11 bitartean, egun hau barne. Lehiaketari buruzko informazio gehiago Zizurkilgo Udal Bulegoetan aurkitzen da.

Azaroaren 12an gaztain jatea antolatuko dute Zizurkil Goian, baita San Millan eguna ere.

Azkenik, hilaren 7an, 14an eta 21ean *Dementziak, Alzheimerra* ikastaroa egongo da Atxulondo kultur etxean. Doako ikastaroari buruz informazio gehiago eskuratzeko, Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatera deitu behar da.

Diru laguntzen zuritzea

Zizurkilgo Udalak herriko elkar-teei azaldu dienez, 2011n banatu diren diru laguntzen bigarren zatien zuritzea egin beharko dute urtea amaitu aurretik; urteko ekitaldien memoria eta fakturak aurkeztuz.

Irudia > Villabona-Zizurkil



JESUSEN BIHOTZAKOAK MEATEGIETAN

Joan den urriaren 13an, Villabona eta Zizurkilgo Jesusen Bihotza Ikastolako DBH 3ko 35 ikasle eta bi irakasle Peñas Negras-era joan ziren, La Arbol-datik 3 km-tara. Garai batean bertan burdinezko meategiak egon ziren. Hau dela eta, hango pai-

saiek izan dituen aldaketak eta historiaren inguruko informazioa jaso zuten bi monitoreren bitartez. Autobusez egin zuten bidaia, baita meategietara igotzeko bidea ere. Jaisterako berriz, funikularra erabili zuten. HITZA

Kontseju Tatetxea
Hirigunea, 1. 20493 Elduain
Eguneko menuak
Ospakizunak
Asteburuko menu bereziak
Plater konbinatuak
943 68 33 27 / 656 710073

Artisau Jogurtak
Mahala

→ Laburrak

'Urte berri on amona' pelikula, Gurea Aretoan

VILLABONA > Gurea Aretoan bi filma ikusteko aukera egongo da ondorengo egunetan. Bihar, hilak 5, *Urte berri on amona* pelikula botako dute, 19:30ean eta 22:15ean. Igandean filme bera 19:30ean ikusteko aukera egongo da, astelehenean berriz 21:30ean. Etzi, hilaren 6an, bigarren pelikula bat botako dute Gurean, 16:30ean. *Linternaverde* izena du pelikula amerikar honek.

Ikasle Eguna jai giroan ospatuko dute bihar

VILLABONA > Ikasle Eguna ospatuko dute bihar, hilaren 5ean, Villabonan. Ikasle Abertzaleek egun guztiko egitaraua osatu dute, hitzaldi, bazkari eta kontzertuekin. Jai giroko egun hau 11:00etan hasiko da. Topaketan ondoren bazkaria edukiko dute 14:30ean, bertsolarien laguntzarekin. Arratsaldean, pailazioak, ekitaldi politikoa eta kontzertuak ikusteko aukera egongo da.

Anoetako ezker abertzalearen batzarra

ANOETA > Hauteskunde kanpainaren barruan herri batzarra egingo dute Anoetan, bihar. 11:00etan udaletxean elkartuko dira, eta udal batzordeen antolaketa, parte hartze batzordea, eta egoera politikoa nahiz hauteskundeak aztertuko dituzte. Ondoren, 13:00etan, Amaiur koalizioa indartzeko argazkia aterako dute. Anoetako ezker abertzaleak herritar guztiak gonbidatu ditu batzarrera eta argazkira.

Bertso musikatuekin afalduko dute, gaur

ASTEASU > Aiztondo Elkartean bertso musikatuekin entzuteko aukera egongo da gaur, hilaren 4a. Bertan Iñigo Manzisidor, Beñat Gaztelumendi, Jokin Labaien eta Amaia Agirre bertsolariak egongo dira. Gai jar-tzailea Iker Iriarte izango da. Afaria 21:00etan izango da eta txartelak herriko tabernetan daude salgai.

EAJren ekitaldia Trianguloa plazan

TOLOSA > Azaroaren 20ko hauteskunde kanpainaren barruan, EAJ alderdiak ekitaldia egingo du bihar, hilaren 5ean, Tolosan. 11:30ean Trianguloa plazan elkartuko dira, eta Arantxa Tapia hautagaia adierazpenak egingo ditu.

Zelarain, Besance eta Otegiren epaiketa bertan behera utzi dute

Angela Murillo epaileak atzo utzi zuen ustezko ETako kideen aurkako epaiketa, eta berriz hasi beharko dute

Erredakzioa

Angela Murillo Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaileak utzi egin du Madrilen ustezko ETako kideen aurka egiten ari diren epaiketa.

Bertan epaitzen ari dira Villabonako Karlos Besance eta Oskar Zelarain, eta Leaburuko Andoni Otegi. Jose Javier Mujika Leitzako UPNko zinegotzi zena hiltzeaz auzipetuta daude gazteak.

Herenegun Mujikaren alargun Adoracion Zubeldiaren lekukotasuna entzun ondoren, oharkabean mikrofonoa zabalik hitz egin zuen Murillok: «Emakume gaixoa. Eta zerri hauek barre egiten dute gainera!». Eta ondorioz epaileak atzo epaiketan abstenitzea erabaki zuen.

Epaiketa beraz, bertan behera geratu da, eta gaur berriro hasi beharko dute.

Araldo Otegiren epaiketa

Atzokoa hala ere, ez da Murillok epaiketan subjektibotasuna agertzen duen lehen aldia.

Joan den otsailaren 8an Angela Murillok Arnaldo Otegi ezarritako bi urteko kartzela zigorra atzera bota zuen Auzitegi Gorenak.

Jose Maria Sagarduri preso zela egindako omenaldian parte hartuta, «terrorismoa goratzea» egotzi zion Murillo buru zuen epaimahaiak Otegi.

Auzitegi Gorenak, aldiz, ez zuen epai hori onartu, «aurreiritzietan oinarritutako erruduntasuna» ezarri zela argudiatuta. Ondorioz, Arnaldo Otegi elgoibartarra berriz epaitzeko agindu zuen Gorenak.

Bigarren urtez ekin diote Mintzalaguna egitasmoari

Galtzaundi euskara taldeak bultzatzen duen proiektuan 40 lagunek parte hartzen dute, zortzi talde osatuz

Erredakzioa Tolosa

Galtzaundi euskara taldeak hasiera eman dio Mintzalaguna 2011-12 ikasturteari Tolosako Iurre elkartearen. Talde gehienak urrian zehar lanean martxan baziren ere, herenegun arratsaldean eman zitzaizkien hasiera ofiziala, talde guztiak elkartuz eta elkarren berri emanez. Galtzaundik merienda baten bitartez eskerrak eman nahi izan zizkien proiektuaren parte hartzaileei, bai hitzun eta baita ikasleei ere. Izan ere, Galtzaundik bigarren urtez jarraian heldu dio Mintzalaguna egitasmoari eta iaz egindako lanari aurretik jarraipena emateko ilusioz azaldu da.

Amaia Doyaguek, Galtzaundi-



Galtzaundi euskara taldeak hasiera eman dio ikasturte berriari. GALTZAUNDI

ko kideak, azaldu bezala, aurtengo ikasturtean guztira 40 pertsona ariko dira Mintzalaguna proiektuan, zortzi talde osatuz. Zazpi talde ohiko Mintzalaguneari jardungo dira, hau da, euskaraz hitz egiteko ohitura dutenek eta ez dutenek astean behin elkartuz, azkenengo hauen euskara erabilpena areagotzeko asmoz.

Bestetik, euskara taldeak, aurretik lehenengo, hitanoa lantzeko taldea abian jarri du. Bertan, par-

taideek hizak hitz egiteko trebetasuna landu eta praktikara eramango dute.

Urte osoan zehar izena emateko aukera zabalik egongo da, egitasmoan parte hartu nahi duen edozeinentzat aukera eskainiz. Harremanetan jartzeko koordinatzailea@galtzaundi.com helbidera idatzi, 943 65 50 04 zenbakira deitu edo Galtzaundiko bulegora (Nafarroa etorbidea, 6, Tolosa) joan daiteke.

Irudia Tolosa



ISIDRO LARRAÑAGA, DISNEYLAND-EN

Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrak Disneyland Parisen kontzertua eskaini zuen urriaren 30ean. Partaideek azaldukoaren arabera, eszenarioa «oso-oso handia» zen, eta «harritura» geratu ziren. «Bi pantaila geneuzkan atzean eta zuzenean

ematen ari ziren jotzen ari gina», azaldu dute. «Pasada bat izan zen. Bertako tekniko batek zoriandu egin gintuen, eta profesionalak ez izateko oso soinu ona genuela esan zigun», gaineratu dute gazteek. HITZA

'Birakabareta' ikuskizuna izango da gaur, Amezketan

22:00etan, kultur etxean, Suyanema, Tic-Tac, Berastegiko Antzerki Taldea, eta Jon Magic ariko dira

Erredakzioa

Amezketako kultur etxean gaur 22:00etan, ikuskizun berezia izango da: *Birakabareta*. Emanaldia lau taldek osatzen dute, eta bakoitzak 15 minutuko antzezlanak eskainiko ditu. Ikuskizunak, beraz, 75 bat minutu iraungo ditu. Suyanema, Tic-Tac, Berastegiko Antzerki Taldea eta Jon Magic izango dira taula gainean, eta hauekin batera, taldeen arteko lotura egiten, aurkezle bat ere izango da. Emanaldia helduentzako izango da eta umorea izango da nagusi.

*Birakabareta*ko sortzailea den Intujai Teatrok ikuskizuna beti euskaraz antzeztzen dutela esan du, eta noizbait kanpoko artistaren bat gonbidatu badute ere, bertako taldeak izaten dira protagonista.

→ Laburrak

Haurrentzako zine zikloko bonuak salgai, gaur

TOLOSA | Gaur 18:00etatik 20:00etara eta egandean 15:30etik 16:30era, haurrentzako zine bonuak erosteko aukera egongo da Leidorren. 5 film 6 euroren truke ikusi ahal izango dira.

Ttenttek taldeko Inauteri konpartsan izen ematea

TOLOSA | Ttenttek aisialdi taldearen Inauterietako konpartsan ateratzeko hilaren 8, 9, 15 eta 16an eman daiteke izena, 18:30etatik 20:00etara. San Frantzisko elizaren atzealdean duten lokalera joan behar da.



Aireberria Hotelean
asteburu baten sariduna:

Felix Pagegi (Markina -Xemein)



Harremanetanako:
902-82 02 01 - harpidetza@hitza.info



*Saria 2011n erabili behar da.

Ibarra eta Tichla saharar herriak senideturik daude. Urriaren amaieran, bi herrietako alkate eta ordezkari berriek elkar ezagutzeko aukera eduki zuten Ibarran.

Senidetzea herritarrez janzteko gogoz

Asier Imaz Ibarra

Ibarrako udal ordezkariak ezusteko bisita jaso zuten duela bi aste: Saharako Tichla herriko alkatearena. Molay Ahmed Mohamed Uali Euskal Herrian aurkitzen zen bidaiari, eta aukera aprobetxatuz, Ibarrra gerturatzea erabaki zuen. Tichla eta Ibarra 1998a geroztik senideturik daude.

Jexux Peñagarikano alkateak eta Naiara Lopetegi Emakumea eta Migrazio saileko zinegotziak egin zuten harrera Tichlako alkateari. Guztiak hautetsi berriak izaki, lehenik eta behin, elkar aurkeztea tokatu zitzaizten. Ondoren, bilera udaletxeko bilkura aretoan egin zuten.

Tichlako alkateak senidetzean gehiago sakondu nahi zuela azaldu zion ibartarrei. Horretarako, oinarri bezala, elkartasun hitza aipatu zuen behin eta berriz, baita behar materialen gainera ere: «Bi herrien arteko elkartasunak izan behar du senidetzearen helburua. Baina elkartasun hori, herritarren artekoa izatea gustatuko litzaiguke, udaletxe eta instituzioen gainera. Ibartarrek jakin behar dute saharar herria bere helburuak lortzeko borrokan ari dela, euskal herritarrek borrokan ari diren bezala».

Jexux Peñagarikano eta Naiara Lopetegi ados agertu ziren Mohamed Ualiren proposamenarekin: «Bi herrien arteko harremana, gure ustez, orain arte instituzio mailan eman da gehien bat. Lan garrantzitsua egin da, baina ezagutza arazo bat egon dela uste dugu Ibarran. Bi herrien artean egin den lan guztia gizarteratu nahi baldin bada, ibartarren parte hartzea beharrezkoa da senidetze honetan».

Herritarren arteko harremana lantzeko, Tichlako alkateak bere ekarpena egin zuen: «Guk ibarta-



Molay Ahmed Mohamed Uali, itzultzailearekin, Naiara Lopetegi eta Jexux Peñagarikanorekin. A. IMAZ

rrak, euskal herritarren ordazkari bezala ikusten ditugu, Tichlako herritarrok saharar herriaren ordezkari garen bezala. Elkartruketa bultzatu behar dugu, eta arlo ezberdinetan. Asko gustatuko litzaiguke Tichlara egiten den hurrengo bisitan, udal ordezkariekin batera, herriko eragile des-

berdinetako kideak joango balarra: gazteak, adinekoak... Gure ustez hori beharrezkoa da, bi herrien arteko elkartasuna lantzeko».

Jesus Peñagarikano Ibarrrako alkatea ados agertu zen proposamenarekin: «Udal ordezkariak bakarrik joan ezker, bisita instituzional batean bakarrik geratzeko arriskua dago. Bisita mota aldatzea gustatuko litzaiguke guri ere».

eta gazteentzat elkartzeko gune bat da, eta hori oso garrantzitsua da elkarbizitza errazteko. Tichlako herritar guztiak dakite Ibarrrako herritarrei esker eman dela aurrera proiektua, eta esker honako hitzak besterik ez ditugu. Bizi garen egoeran, jasotzen dugun laguntza guztia eskertzekoa da».

Eskariak eskari eta laguntza proposamenak proposamen, Mohamed Ualik gauzak bere lekuan utzi nahi izan zituen. «Oinarritzko behar guztiak falta zaizkigu, baina gauza bat argi daukagu: saharar kausaren irtenbidea politikatik etorriko dela. Horregatik da hain garrantzitsua guretzat herritarren arteko harremana. Bai instituzioek eta baita herritarrek ere presioa egiten jarraitu behar dute nazioartean. Behar ekonomikoak? Denak, baina garrantzitsuen politikoak da».

Ibarrrako ordezkariak, azkenik, «senidetze honen fruituak eman ditzan» lanean jarriko direla aipatu zuten, eta «lan egiteko prest dagoen orok, udaletxera gerturatutako besterik ez du egin behar».

Tichla herria, Aljeriako kanpamenduetan

➔ Tichla herria, Aljeriako Tindouf hirian aurkitzen diren errefuxiatu kanpamenduetan aurkitzen da. 1975ean, Mendebaldeko Saharatik ihes egin behar izan zutenean, Aljerian aurkitu zuten babesa sahararrek. Errefuxiatu kanpamenduak, beraz, bertan jarri zituzten. Kanpamenduetan 200.000 pertsona bizi dira, eta lau probintzia edo kanpamendutan antolatzen dira. Tichla herria, Auserd probintzian dago. Errefuxiatu kanpamenduetako herrien izenak, Mendebaldeko Saharako herrien izenak dira, hau da, Tichla bat Aljerian dago eta bestea, Marokok okupaturik duen Mendebaldeko Saharan.

Sahararrek Aljeriako herritarren eta gobernuaren laguntza «bihotz-bihotzez» eskertzen dute, Molay Ahmed Mohamed Ualiren esanetan, «bestela ez ginateke existituko». Marokokok zer nahi duen galdetuta, zera dio: «Eurek gatazka politikorik ez dagoela esaten dute, gu marrokiarrak garela. Baina hori ez da horrela: gu ez gara izan inoiz marrokiarrak, eta ez gara izango inoiz».



Tichlako alkateak Ibarrrako alkateari Saharako ohiko jantzia oparitu zion, *darrà* izenekoa. A. IMAZ



Mendebaldeko Sahara bi zatitan dago banatua: okupatutako eremua eta askatutako eremua. Erdian Marokok harrisia altza zuen. Tichla herria Aljeriako Tindouf-en dago, baita okupatutako eremuan ere. HITZA

Bihar hasiko da Emakumea Pilotari Txapelketa

Garmendia, Mendizabal eta Arozena eskualdeko pilotariak hartuko dute parte; guztira 24 parte hartzaile ariko dira

Erredakzioa

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak antolatzen duen Ezker Hormako Emakumea Pilotari Txapelketako lehen pilotakadak bihar hasiko dira entzuten. Txapelketan honetan, eskualdeko hiru pilotarik hartzen dute parte: Alegiako Ainhoa Garmendiak, Anoetako Maider Mendizabalek eta Lizartzako Nagore Arozenak.

Guztira lehenengo eta bigarren mailako 24 pilotari ariko dira nor baino nor. Eskualdeko dagokienez, hirurak lehenengo mailan lehiatuko dira. Partida guztiak larunbat arratsaldean jokatuko dituzte, 16:30ean hasita. Lehenengo jardunaldia bihar izango da, Ordizian eta Idiazabalen. Gar-



Pasa den urteko txapelketako partida bat. HITZA

mendia eta Semperrek osaturiko bikoteak Ordizian jokatuko du, Etxabe-Errastiren aurka, eta Redondo eta Arozenak osaturikoa herri berean ariko da Irazustabarrena-Argainen aurka. Etxegia-Mendizabal bikoteak, berriz, Idiazabalen jokatuko du, Evaristti-Mendizabalen aurka. Finala abenduaren 23an izango da.

Bestalde, jubenil mailako Ez-

ker Hormako Gipuzkoako elkar-teen arteko Txapelketaren laugarren jardunaldia jokatuko dute bihar. Anoetan, 11:00etan hasita, Su-Berri 2 Hernani 2ren aurka ariko da, eta Su-Berri 1 Intxurre 1en aurka. Su-Berri anoetarrak eta Intxurre alegiarrak abenduaren 23an, Hernanin jokatuko den finalerako txartela lortzen saiatuko dira.

Zeberio eta Aizpurua, Erremonte Txapelketan

Bihar hasiko da 41. Binakako Txapelketa; Zeberio sei txapela ditu, eta Aizpurua lehenengoz ariko da

Erredakzioa

Bihar ekingo dio Binakako Azysa Erremonte Txapelketak. Bertan eskualdeko bi jokalarik hartuko dute parte, Elduaingo Patxi Zeberio eta Tolosako Xanti Aizpurua.

Leku berezia du Zeberio II.ak txapelketa honetan, izan ere, sei aldiz irabazi du. Pasa den urteko bikote berarekin lehiatuko da aurten ere, Ionekin, hain zuzen.

Aizpurua II.a, berriz, txapelketako berrikuntzetako bat da, bere lehen txapelketa ofiziala baita. Hori dela eta, «oso pozik eta gogotsu» aurkitzen dela adierazi du. Ezkurrearekin batera jokatuko du, eta bihar izango dute lehen partida, Galarretan, 16:00etan, Urtasun-Etxeberriaren aurka. Zeberio eta Ionek, berriz, azaroaren 12an jokatuko dute.



Herenegun aurkeztu zuten 41. Binakako Erremonte Txapelketa. MAIALEN ANDRES

Azaroko hiru larunbatetan kale emanaldiak, merkatarien eskutik

Bihar arratsaldean izango da lehen ikuskizuna; Tolosa&Co txartelarekin ekimen berezia abiarazi dute

Iñigo Terradillos Tolosa

Tolosa&Co merkatarien elkarteak larunbatetik geroztik ekimena abiarazi du hirugarren urtez. Hori bai, Eusko Jaurlaritzatik jasotako diru laguntza murriztagoia denez, egitaraua ere halakoa izango da, eta azarora mugatuko



Erdi Aroko folka eskainiko du Jabadeus taldeak bihar. HITZA

da. Hain zuzen ere, azaroko hiru larunbatetan izango dira «tolosaldeko merkatarien eskutik» emanaldiak.

Agustin Aduriz merkataritza dinamizatzaileak azaldukoaren arabera, bada berrikuntzarik emanaldiei dagokienez: «Aurten,

emanaldiak mugikorrek izango dira, ez dira leku finko batean izango beste urteetan bezala». Dena den, eguraldiak lagunduko ez balu, Zerkausian eta Berdura plazan izango lirateke. Lehenengo emanaldia bihar bertan izango da, 18:00etan hasita. Jabadeus taldeak *Erdi Aroko folka* eskainiko du Nafarroa etorbidean, Laskorain kalean eta San Frantziskon.

Tolosa&Co txartela

Bestalde, merkatarien elkartetik adierazi dutenez, abenduaren 14a bitarteko erosketak Tolosa & Co txartelarekin ordaintzen dutentzat abantailak izango dira. Erosketetan %5eko deskontua, bi lagunentzako afarien zozketa edota Arriaran gasolindegirako deskontuak eskuratu ahal dira.

Magia emanaldia izango da bihar, Leaburuko gazte lokalean

I. Terradillos Leaburu-Txarama

Leaburu-Txaramako Udalak antolatuta, magia emanaldia izango da bihar Leaburuko gazte lokalean. Hain zuzen ere, Angel magoak eskainiko du ikuskizuna, 17:00etatik aurrera.

Bestalde, dagoeneko zabalik dago Leaburuko liburutegia. Astelehenetan, asteazketan eta ostiraletan irekiko ditu atean, 17:30etik 19:30era.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak



Zorionak!

Uxue Aizpurua de Paz (Asteasu).
Datorren astelehenean 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



Zorionak Hodei!

Zorionak igandeko partez etxekoan partetik, eta bereziki muxu handi-handi bat aita txoren partez.

Et Incarnatus orkestraren doinua erabili dute Teledeporte katean

Errugbiko bideo batean tolosarrekin egindako Laboaren 'Negua' abestiaren moldaketa entzun daiteke

Rebeka Calvo Tolosa

Teledeporte kateak Et Incarnatus orkestra tolosarraren abesti bat erabili du errugbiko sustapen bideo batean. *Xoriek 17* diskoko *Negua* kanta da, Mikel Laboaren abestiaren moldaketa, hain zuzen. Moldaketa Juantxo Zeberio egina da, eta orkestrako zuzendari lanetan Migel Zeberio aritzen da.

Migel Zeberio dioenez, «kasualitatez» enteratu dira abestia erabili dutela, nahiz eta aurretik lagun batzuk ere zerbait esan zioten. «Pasa den udaberrian edo, lagun batzuk esan ziguten telebistaren karabanaren bat pasa eta gure musika entzun zutela. Egia esan bukaera aldera edo konturatu ziren. Esan ziguten, baina ez

genion kasu handirik egin. Horrik gutxira beste lagun batzuk gauza bera esan ziguten. Baina orduan ere ez genuen kaso askorik egin», dio. Et Incarnatusen abestia erabiltzea ona dela dio, baina ez daki nola izan den aukeraketa: «Guk ez dugu ezer egin, oraintxe enteratu gara, eta orain ari gara berria zabaltzen. Ez daki nola egiten duten, nola aukeratzatzen duten... Ea enteratzen naizen».

Ez dute era honetako esperientzia bakarra, hala ere, izan ere TVE kateko *La Señora* izeneko telesailko abestiak ere Et Incarnatusen interpretatu zituen.

Zuzendaria pozik dago albistearekin, eta euren lana «proiektuak saltzea» dela dio. «Ez daukagunez baliabiderik, gurea saldu behar dugu. Funtzionamendu berezia dugu eta zuzeneko oso gutxi ematen ditugu, batez ere, grabatu egiten dugu; 40 disko edo grabatu ditugu jende ezagun askorekin», argitu du.

Et Incarnatus orkestran oso ibilbide berezia dutela dio Zebe-

riok. «Ez gaude inorren menpe, grabatu eta grabatu egiten dugu... Horren berezia da gure ibilbidea, ezen lehen enkargua orain iritsi zaigula: Tolosan urtarriaren 27an joko dugu, Leidorren».

Orain arteko emanaldiak berriak antolatuta izan dituzte, ez dira enkarguz izan.

Emanaldi berezia
Urtarrilaren 27ko emanaldia orkestra bera bezala, berezia izango da.

Azken urteetan Nafarroaren Egunaren harira, Basaizea elkarrekin zerbait berezia antolatu izan du, eta Et Incarnatusen abestia ere hain izan dira. «Aurten izan gara hain, eta baita duela 3 urte ere. Tolosara azkeneko egindakoa ekarriko dugu», argitu du.

«Zerbait originala izango da. Bertan izango gara Tolosako Lasgorain ikastolako abesbatzarekin, Ken 7 taldeko Eñaut Elorrieta-rekin, Amaren alabak taldearekin eta Baigorriko gaiteroekin batera», gaineratu du.

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** L. Lejeune, Euskal Herria kalea, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. Telefonoa: 943 65 10 45.

- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

ETZI

- **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

ETZIDAMU

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.



HITZAK harpidedunentzat **3 sarrera pare** ditu

Ordezko Andereñoa filma

- Imanol Odriozola (Tolosa)
- Alazne Lasa (Irura)
- Maria Jesus Galarza (Ibarra)

Azaroak 6 • Igandea • 17:00etan Tolosako Leidorren

Sarrerak leihatilan bertan izango dituzue

saridunak



sarrerak

HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pare** du

LAGUN ARO GBC
Valencia Basket

saskibalo partida

Azaroak 6 • Igandea
18:00etan
Donostiako Ilunben

■ **Xabier Estarbe (Tolosa)**

Sarrerak jasotzeko HITZAKo bulegotik pasa

